

FUNTSEZKO SOZIETATEAK

Gure negozio-eredua funtzionatzeko ahalbidetzen duten hornitzaile eta bazkide sareak ezagutu behar ditugu.



Beraz, gaia ulertu ondoren gure negozio eredua aurrera atera ahal izateko ondorengo enpresekin sortuko ditugu harremanak:

- **Ekitaldi antolatzaileak:** Ekitaldi antolatzaileak negozio honen bezeroak izango dira, horiek izango baitira segurtasun zerbitzuak kontratatzen dituztenak. Antolatzaileekin harremana etengabea izan behar da, segurtasunari buruzko koordinazioa egiteko, tokia zaintzeko eta adosteko eta lapurreta bat gertatuz gero nola jokatu erabakitzeko. Gure bazkideak izango liratezke eta hauen arrizkuak murriztuko genituzke.

- **Garraio enpresak:** Ekitaldiaren kokapenaren arabera, garraio-enpresek garrantzi handia izan dezakete, jendea modu ordenatuan banatzen lagunduz. Garraio-enpresek segurtasunaren sistema lagundu dezakete, jende pilaketak prebenituz eta kokapen seguruena identifikatuz. Gure bazkideak izango liratezke eta arriskuak murrizteko balioko luke.

- **Marketing eta publizitate enpresak:** Negozio honek bezeroak erakartzeko estrategia on bat behar du, eta marketing digitalaren edo publizitatearen enpresek laguntza handia eman dezakete. Marketing-enpresekin lan eginez, zerbitzuak promozionatu daitezke ekitaldi, sare sozialen edo web orrialde bidez. Gure bazkideak izango liratezke eta baliabideak eskuratuko genituzke.

Beraz, sare horiek sortzen dituzten bi enpresek onurak lortuko dituzte, sare praktiko eta errentagarriak sortzen.

